



Kobarongo mea kargatzeko tokia (Muskiz)

Muskizko kostaldean dago, Pobeñatik Kobaronera doan Itsas-Lur pasealekuan; izan ere, antzinako trenbidetik doa pasealekua, Mac Lennan konpainiaren mea kargatzeko tokiraino garraiatzen zen bidetik hain zuzen.

Bizkaian egin zen lehenetakoa izan zen, eta itsaso zabalean mea itsasoratzen zuen bakarra, Nerbioi itsasadarrean zama-lanen ondoriozko kargak eta itxaron beharrak ekiditeko. Kostaldean bertan zama-lanak egiteko aukera horrek, hots, itsasadarrean sartu barik egin beharrekoak, zailtasun handiak zekartzan, bai itsaso zabaleko toki bateko eraikuntza zelako, bai ondoren kargari erabilera berezia eman behar zitzaiolako, zeren eta olatuek zaildu egiten baitzuten itsasontziak porturatzea.

Gainera, kontuan hartu behar da eguraldi ona egiten zuen hileetan baizik ezin erabil zitekeela ia, hau da, apiriletik urrira.

Deskribapena

Tipologiari dagokionez, kargatzeko tokia bai baina hegalduna zela esan behar da, José Mac Lennan de Minas, S.A. enpresaren aginduz egin 1870ean Amalia Vizcaina eta San Francisco meategiei zerbitzua emateko. Izan ere, bertako mea 3 kilometroko kostaldeko trenetik zetorren kargatzeko tokiaren oinetan zeuden depositu batzuetara. Depositu horiek handitu egin ziren 1930ean edukiera handiagoa emateko.

Aldaketa handiak izan ziren kargatzeko tokian zerbitzuan izan zen urte luzeetan. Hasieran, deposituetatik hondakindegietara eramaten zen karga bagonetan bidez, baina horrek mugatu egiten zuen kargak egiteko ahalmena, hots, egunean 600 tona gehienez ere, bagonetak eskuz mugiarazten zirelako. Hala eta guztiz ere, 1908. urtean, prozesua bizkortu ahal izateko, 57 metro luzeko aldibereko bi karga-pisu jarri ziren, bi dorrek eutsita eta deposituko ahokoekin lotuta. Galeria bat zegoen bertan, eta handik eramaten zen mea hondakindegira nagusi batean amaitzen ziren bi uhal garraiatzailetan; mea itsasontzietako eskotilaren gainean erortzen zen zuzenean uhaletatik. Bi uhalen artean, orduko 1,7 tonako errendimendua lortzen zen, eta horri esker, lau ordutan 4 tonako lurrun-kargaren prozesua burutu zitekeen eta, hala, portuan eman beharreko denbora nabarmen murriztu zitekeen. Kairik ez zegoenez eta olatuen mendean egin beharreko lana zenez, funtsezkoa zen portuan eman beharreko denbora murriztea.


Kargatzeko toki honen ainguralekuak sakonera arazoak izan zituen beti. 12 eta 16 oin bitarteko sakonera zuen, eta 1963ra arte izan zen martxan, urte hartan utzi baitzitzaion meatzaritzari inguru horretan. Gaur egun, kargatzeko tokiaren oinarria ikus daiteke, mailak dituen aurrealde batekin itsaso zabalera ematen duen harri-horma handi bat. Gaur egun galduta dago bagoiak zebiltzan zurezko plantxa zabala, baita plantxari eusten zion metalezko armazoiaren zatirik handiena ere.

Azterketa

Kostaldean bertan zegoen, itsasadar edo portu baten babesik gabe. Hori dela-eta, eraikuntza berezia dugu, zeren Bizkaian mea kargatzeko 23 toki izan baitziren Nerbioi itsasadarrean, baina Kobarongoa zen itsaso zabalean zegoen bakarra. Ondoko Kantabrian, berriz, baziren horrelakoak. Horrexegatik izan zituen itsas zabalera egokitze berezitasunak eraikuntzaren aldetik ere. Ez zen erraza izan Kobarongo kargatzeko tokia egitea, zeren itsasoak ordu gutxi batzuetan suntsitzen baitzuten egun askoan eginiko lanak.

Balorazioa

Nahiz eta bagoiak zebiltzan zurezko plantxa zabalaren hondarririk iraun ez, eta gainera plantxari eusten zion armazoi indartsuaren zati txiki-txiki bat besterik gelditzen ez bada ere, ondare-balio handiko elementutzat jo daiteke, bai itsaso zabalean zegoen bakarra zelako, bai Bizkaiko mea kargatzeko lehen tokia zelako. Gainera, kargatzeko toki horiek Bizkaiko Jaurerriarentzat izan zuten garrantzia balioetsi behar da, zeren Bizkaiko mea Europa osora zabaltzeko modua erraztu baitzuten. Kargatzeko tokien artean, adibide ederra dugu Kobarongoa.



Kobarongo mea kargatzeko tokia

Muskiz.